

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

R 06/2011 ebazpena

44/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 21ean

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka planteatutako gatazka negatibo honen inguruan: bi administrazioetatik zein den eskuduna “....., SL” entitateak, IFZ..... zenbakidunak, 2003ko BEZaren saldo negatiboagatik erreklamaturako itzulketa egiteko. Gatazka hori 44/2008 espediente zenbakiarekin ari da izapidetzen Arbitraje Batzordean.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2008ko azaroaren 27an planteatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arbitraje Batzordean 2008ko abenduaren 1ean erregistratu zen idatzia dela medio. Idatzi horretatik, eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak 2009ko martxoaren 2an aurkeztutako eta Arbitraje Batzordean martxoaren 3an erregistratutako alegazioetatik, ondorengo aurrekariak laburbildu daitezke:

1) 2003ko abenduaren 12an, “.....” entitateak, IFZ zenbakidunak (aurrerantzean “entitatea”) lurralde erkidetik Gipuzkoako Lurralde

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

Historikora aldatu zuen sozietate helbidea, eta une horretatik aurrera Gipuzkoan hasi zen tributatzen Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 27.Bat.hirugarrena eta 43.4.b) artikuluetan jasotakoari jarraiki.

- 2) Sozietate helbidea aldatu arren, 2004ko urtarrilaren 28an entitateak BEZaren urteko aitorpen-laburpena (390 eredua) aurkeztu zion, epe barruan, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari, eta haren emaitzaren arabera agentziak 392.941,10 euro itzuli behar zizkion. 2004ko abenduaren 16an, ZAEAk 399.997,89 euro itzuli zizkion entitateari, hau da, itzuli beharreko kopuru hori gehi 7.056,79 euroko interesak.
- 3) 2004ko urtarrilaren 29an, entitateak beste 390 eredu bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan, hain zuzen ere helbidea Gipuzkoara aldatu ondoren egindako eragiketak biltzen zituena. Aitorpen horretan 5.037,21 euro konpentsatzea atera zen.
- 4) 2008ko urtarrilaren 29ko sarrera datarekin aurkeztutako idatzian entitateak Foru Ogasunari eskatu zion 2004ko urtarrilaren 29an aurkeztutako aitorpena aldatzeko, "konpentsatu beharrekoa" 397.978,31 euro zelako, hau da, jatorrizko aitorpenaren saldoa gehi Estatu Administrazioari eskatu ondoren hartatik lortutako itzulketa (392.941,10 euro). GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzu buruak ezezkoa eman zion eskaerari 2008ko otsailaren 22an.
- 5) Enpresa Handien Eskualdeko Unitateko Ikuskari Ondokoak behin-behineko likidazio proposamen bat egin zuen entitatearentzat 2008ko ekainaren 4an, eta haren arabera entitateak kuota hau ordaindu beharra zeukan: 399.997,89 euro gehi beste 79.435,20 euro berandutza interesengatik. Funtsean, likidazio hori egiteko arrazoia zen ekitaldia ezin zela zatitu BEZa likidatzearen ondorioetarako, eta hortik ondorioztatu behar zen ekitaldiaren amaieran zergadunaren zerga helbidea non zegoen kokatuta, eta bertako administrazioari zegokiola itzulketa

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

egitea. Proposamen hori 2008ko ekainaren 26an jakinarazitako likidazioan jaso zen.

- 6) Urriaren 1eko 820/2008 Foru Aginduan, GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zeukala eskumenik entitateak aurkeztutako 390 ereduaren arabera 2003ko BEZagatik itzuli behar zen saldo negatiboa itzultzeko, eta horretarako eskumena Estatuko Administrazioari zegokiola argudiatu zuen. Aitorpena 2008ko urriaren 2an helarazi zitzaion Estatuko Administrazioari.

Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duenak, 11. artikuluan xedatutakoa betez, 2008ko urriaren 7an GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuak eskumengabetasun aitorpena jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailari.

- 7) 2008ko azaroaren 6an, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak, Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkarri Bereziaren bitartez, idatziz adierazi zuen Estatu Agentzia eskumengabea zela entitate zergadunak eskatutako itzulketa egiteko. Jarrera hori argudiatzeko, Estatu Agentziak funtsean adierazi zuen BEZaren likidazio aldia zatikatzea zergaren araudiaren kontra doala.

2. Arrazoiak planteatzeko idatzian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arbitraje Batzordeari eskatu dio “eskumen gabekotzat jo dezala Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua 392.941,10 euroko saldo negatiboaren konpentsazioa eta, azken instantzian, itzulketa onartzeko. Itzulketa “.....” entitateak eskatu du, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2003ko aitorpen-likidaziotik dator (urteko aitorpen laburpena egiteko 390 eredutik), hain zuzen ere, BEZa ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioari zegokionean jasandako BEZaren kuotetatik.”

3. 2008ko abenduaren 22ko bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau tramitatzea eta hura planteatu izana Estatuko Administrazioari jakinaraztea. Jakinarazpena 2009ko urtarrilaren 28an egin zitzaion.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

4. ZAEAk 2008ko urriaren 30ean aurkeztu zituen bere alegazioak, 2008ko azaroaren 3an erregistratu zirenak. Bere argudioak azaldu ondoren, bertan Arbitraje Batzordeari eskatzen dio “ ezetsi egin dezala Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa, eta eskudun jo dezala bai zerga ordainarazteko, eta bai, beraz, zergadunak 2003ko BEZaren laugarren hiruhilekoarengatik eskatutako itzulketa erabakitzeko.” Bistan da eskaera gaizki planteatuta dagoela, eta ZAEAk nahi duena dela GFA eskudun jotzea 2003ko BEZaren saldoa itzultzeko, entitatearen helbidea lurralde erkidean izan zen zatiari dagokionez.

6. Espedientea amaituta, ikusgai jarri zitzairen bai ZAEari, bai Gipuzkoako Foru Aldundiari eta bai entitate interesatuari. Lehenengoak 2009ko ekainaren 10ean aurkeztu zituen alegazioak, Arbitraje Batzordean ekainaren 11n erregistratu zirenak, eta bigarrenak 2009ko ekainaren 11an aurkeztu zituen bereak, hurrengo egunean erregistratuak. Entitate zergadunak ez zuen eskubide hori erabili.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Planteatu den gatazka honetan Arbitraje Batzordeak erabaki behar du zer administrazioak itzuli behar duen 2003ko BEZaren urteko aitorten-laburpenean (390 ereduan) ateratzen den emaitza (392.941,10 euro). Aitorpen hori zerga helbidea Gipuzkoara aldatu arte egindako eragiketengatik aurkeztu zion entitateak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari.

2. Arbitraje Batzorde honek bi ebazpenetan aztertu du nori dagokion BEZaren saldoak itzultzeko eskumena helbide aldaketa bat izan denean eta horrek zergaren administrazio kudeatzailea aldatzea dakarrenean, eta hauek dira: R 11/2009 Ebazpena, 2009ko maiatzaren 5ekoa (18/2008 espedientea), eta R 12/2009, 2009ko ekainaren 19koa (20/2008 espedientea). Estatuko Administrazio Orokorrak Auzitegi Gorenaren aurrean errekurritu zituen bi ebazpen horiek, eta Auzitegi Gorenak bi sententzia eman zituen errekurtsio horiek ebazteko, 2010eko ekainaren 10ekoa (378/2009 errekurtsioa) eta 2010eko ekainaren 17koa (529/2009 errekurtsioa).

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

Badago, hortaz, jurisprudentziarik auzi honetan eztabaidatzen ari den gaiari dagokionez, eta honela laburbildu daiteke. Funtsean, bi sententzia horiek berretsi egiten dute Arbitraje Batzordearen ebazpenetan erabilitako irizpidea, alegia, bai BEZaren sistemak eta bai Ekonomia Itunak galarazi egiten dutela saldoak administrazio batetik beste batera eramatea. Lehen sententziak dioenez, “Subjektu pasibo batek zerga helbidea lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak hartu eta zerga helbide fiskal berriko zerga administrazioaren aurrean aurkeztutako aitopen-likidazioetara eramateak aldatu egingo luke Ekonomia Itunean aurreikusita dagoen eskumen ordainarazlea, zeren eta “ordainarazpen hori” murriztuta geratuko bailitzateke lehenago jasandako kuoten konpentsazioarekin. Gainera, zergapeko batek Administrazio batekiko duen kreditu fiskala beste administrazio batera eramateak berekin ekarriko luke administrazio bat bidegabeki aberasten dela eta beste bat kalteturik gertatzen dela justifikaziorik gabe. Distortsioak eragingo lituzke ondarean, Ekonomia Itunaren arabera baliabide fiskalak zuzen banatzeko printzipioarekin bat ez datozenak.

Sententzi horiek bat egiten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak defenditu duen tesiarekin, alegia, posible dela BEZaren likidazio aldiak zatikatzea helbide aldaketak daudenean, baldin eta pertsona juridikoei analogiaz aplikatzen bazaie Ekonomia Ituneko 43.zazpi artikulua pertsona fisikoentzat jasotzen duen erregela (haren arabera helbidearen aldaketak berehalako ondorioak sortzen ditu) eta irizpide hori loturan jartzen bada, BEZaren eskumenari dagokionez, 27.hiru artikuluko konexio puntuarekin.

Laburtu ditugun arrazoibide horien ondoren, ondorio honetara iritsi da sententzia ematen duen aretoa:

“Orain arte azaldutakoa aintzat hartuta, Estatuko Administrazioari dagokio BEZaren saldoa itzultzea, zerga sortu zen momentuan berak baitzeukan BEZa ordainarazteko ahalmena. Hortaz, entitatearen helbidea Gipuzkoara aldatzean ordaindu gabe zegoen BEZaren saldoa Estatuko Administrazioak itzuli behar du. Merkataritza entitateak itzulketa eskaera bat egin diezaioke ZAEari, eta honek onartu egin beharko du, nahiz eta horrek ez dion eskubiderik kentzen

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

eskatutako itzulketa zuzenbidearen arabera dela egiaztatzeko. Egia da egin dugun aukera ez datorrela hertsi-hertsiki bat BEZa kudeatzeko arauekin, baina, lehen esan bezala, hori gai honetan dagoen hutsunearen ondorio bat baino ez da. Hutsune hori gabe, gatazka hau ez zen sortuko.

“Areto honen 2010eko martxoaren 3ko sententziak agerian uzten duenez (538/2009 zk.ko errekurtsioa), itzulketarako eskubidea ezin da nahastu eskubide horren erabilerarekin, eta haren ondorio nabaria da itzulketarako eskubideaz baliatzeotan, prozedurari zorrozki helduta, eskumen arloko erregela orokorren arabera baliatu behar dela. Hortaz, entitatearen helbidea orain Gipuzkoan dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean aurkeztu du entitateak bere errekurtsioa, nahiz eta horrek ez duen eragozten itzuli beharreko zenbatekoa ZAEAk jasan behar izatea. Subjektu pasiboaren helbidea aldatzeak, printzipioz, exijitzen du eskubidea Ekonomia Ituneko konexio puntuaren indarrez eskudun den Administrazioaren aurrean erabili behar dela, eta administrazio hori itzulketa eskatzen duen entitatearen gaurko udala izango da. Hala ere, BEZaren oinarrizko egitura aintzat hartuta eta Ekonomia Ituna hitzez hitz interpretatuta, BEZaren saldoa Estatuko Administrazioetik Foru Administrazioa aldatzea ezin denez onartu, askoz sinpleago eta praktikoagoa da zergadunak ZAEARI eskatzea zuzenean 2006ko lehen hiru hiruhilekoetako BEZaren itzulketa, hiruhileko horietan entitatearen helbidea lurralde erkidean kokatuta egon zen neurrian. “

4. Azaldutako jurisprudentiaren aginduz, Arbitraje Batzordeak adierazi behar du kasu honetan Estatuko Administrazioari dagokiola ordaindu gabeko saldoa itzultzea, zerga sortu zen momentuan berak baitzeukan BEZa ordainarazteko ahalmena.

Bestalde, 2010eko ekainaren 10eko sententziak dio zer prozedura erabili behar den ebazpen hau exekutatzeko. Hain zuzen ere, dio zergadunak idatzi bat aurkeztu behar diola ZAEARI eta bertan itzulketa eskatu. Aztergai dugun kasuan, eskatutako itzulketa egina zeukan jada ZAEAk, eta, bere asmoa zen hura berreskuratzea 2008ko ekainaren 26ko likidazio egintzaren indarrez. Egintza hori ez bada exekutatu,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
44/2008	R6/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

zilegi da baliorik gabe uztea; bestela, ZAEAk itzulketa egin beharko du berandutza interesak gehituta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Adieraztea Estatuko Administrazioari dagokiola 2003ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioak (390 ereduak) emandako 392.941,10 euroko saldoa “....., SL” entitateari itzultzea. Aitorpena ZAEArri aurkeztu zion entitateak zerga helbidea Gipuzkoara aldatu arte egindako eragiketengatik.

Ebazpen hau exekutatzeko aldera, ZAEAk baliorik gabe utzi beharko du 2008ko ekainaren 26ko likidazio egintza, eta egintza hori dagoeneko exekutatu bada, lehen adierazitako zenbatekoa itzuli beharko dio “....., SL” entitateari, honek hala eskatuta, berandutza interesak gehituta.